# ZUMAIA zurekin

20- zenbakia
Urria 2007

EAJ-PNV
Eusebio Gurrutxaga 6
20.750 Zumaia
Tfnoa: 943-861496
eajzumaia@euskalnet.net

www.zumaiapnv.com



## ZUMAIAKO EAJ-PNV-K BEREA EGITEN DU IBARRETXE LEHENDAKARIAK EGINDAKO EUSKAL GATAZKAREN KONPONBIDEARI HELTZEKO PROPOSAMENA ETA AURRERA ERAMATEKO BEHARREZKOAK IZANGO DIREN EKINTZETAN LAGUNTZEKO KONPROMISOA HARTZEN DU

## LOS LOCALES DE LA PLAZA DE AMAIA PARA AEK Y LA GUARDERÍA EN PREFABRICADOS



# ZUMAIAKO URI BURU BATZARKIDE BERRIAK



**Xabier Urrutia**
**Lehendakaria**

Aurreko Irailean UBBko kide berriak hautatu ziren eta ondokoa izan zen emaitza:

Lehendakaria: **Xabier Urrutia Elorza**
Idazkaria: **Montse Atxega Etxebeste**
Diruzaina: **Maria Jesus Antia Albizu**
Kideak: **Xabier Irureta Sasiain**
**Montse Arana Perez**
**Iñaki Oreja Aizpurua**
**Lore Esnal Albizu**
**Joseba Esnal Albizu**
**Agustin Amilibia Alkiza**

# ZUMAIAKO BI ALDERDIKIDE FORU ALDUNDIKO PARTAIDE



***Edurne Egaña Manterola***
***Lehendakaritzako eta Foru Administrazioko Diputatua***

Ekonomia Zientzietan Lizentziatua eta MBA Masterra
2003tik Administrazio Publiko eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaria eta 2001 eta 2003 bitartean Eusko Legebiltzarkidea Gipuzkoatik.
Ezkongabea.
Zumaiar peto petoa dela esan genezake, bertan jaio eta hantxe bizi da. Politikarako zaletasuna txiki-txikitatik datorkio, biziki bizi izan bai da abertzaletasuna bere familian.
Zumaiako EAJ Uri Buru Batzarreko idazkaria da, urte askotan bertako kide izan delarik.



***Arantza Tapia Otaegi***
***Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako Diputatua***

1963an Astigarragan jaioa eta duela 19 urte Zumaiara etorri zen bizitzera. Ezkondua eta bi alaben ama.
Zumaiako UBBko kidea 2004 eta 2007 bitartean
Ingenieritza Industrialean Doktorea eta Sistemen Ingenieritza eta Automaikako Katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean.
Donostiako Unibertsitateko Politeknikoko Nazioarteko Erlazioen Arduraduna 1998-1999 ikasturtean, bertako Idazkari Akademikoa 1998 eta 2002 bitartean eta Eskolako Zuzendaria 2002 eta 2005 tartean.
2005-2007 artean, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailburuorde izan da.

# Ba al zenekien?

### *Ejemplo de tansparencia y participación*

La concejala de Cultura (EA) no convocó ninguna Comisión en todo el verano, ni pasó ninguna información a los demás concejales. Han tardado 5 meses en convocar la primera reunión de la Comisión de participación Ciudadana.

### *¿Para qué la Movilidad Sostenible??*

Aunque en todo el mundo se preocupan por este tema, en Zumaia, este año no se ha celebrado “El día sin coche” dentro de la Semana de la Movilidad. Por lo visto, a los nuevos responsables municipales no les parece importante.

### *Los parque infantiles*

En octubre, el Alcalde, Iñaki Agirrezabalaga, anunciaba a través de la prensa que pensaba actuar en los Parques Infantiles por las numerosas quejas que se habían recibido. Se le olvidó decir que esas inversiones se lograron gracias al acuerdo de la Alcaldía del PNV y la Diputación antes de las elecciones de mayo.

## BATZOKIARI ERASOA




**Nork deitzen gaitu “faszista”?**

### *Amiguismos*

Sabíais que existen diferencias entre los grupos culturales a la hora de recibir subvenciones por la misma actividad, según sea la amistad con la concejala de Cultura??

### *Beraien etxea izango balitz bezela*

Lehen aldiz Udaletxeko bilkura aretoa alderdi politiko batek erabili du udal kudeaketarekin zerikusirik ez duen prentsaurreko bat emateko. Aipatu dugun alderdi hori ANV-EAE da.

### *Errekorra!!!!*

Ezker Batua-Aralarrek uztailean udal-gobernukide izatearen mundu mailako errekorra hautsi zuen: Iraupen laburrari dagokiona. Bere zinegotzia, alkateorde eta gobernu kide bihurtu zen larunbat batean, eta eskainitako zerbitzuengatik Alkatearen eskerrak jaso ondoren, hurrengo ostiralean kargua utzi zuen.

# PROPUESTA DEL LEHENDAKARI PARA ABORDAR LA SOLUCION DEL CONFLICTO VASCO

## OFERTA DE PACTO O ACUERDO POLÍTICO AL PRESIDENTE DEL GOBIERNO ESPAÑOL: MONCLOA OCTUBRE 2007

El pacto o Acuerdo que se propone es un **Acuerdo de contenidos**, un acuerdo de mínimos, no un texto articulado y que **consiste en que se reconozca que existe un conflicto político y en que se reconozca que para solucionar adecuada y definitivamente este conflicto es imprescindible aceptar lo que ese pueblo, el pueblo vasco, sus gentes, decidan**.

## PLENO DEL PARLAMENTO VASCO: JUNIO 2008

El Parlamento Vasco es el campamento base de todo el proceso

**Alternativa 1: Si se alcanza el ACUERDO de CONTENIDOS**.

El Parlamento Vasco aprobará el Acuerdo alcanzado con el Presidente del Gobierno Español y autorizará una CONSULTA CON DOS CUESTIONES:

- ***Exigir a ETA que de por finalizado el uso de la violencia*** y que acuerde con le Gobierno español los último matices para que el fin sea definitivo.
- ***Ratificar del Acuerdo*** y solicitar a los partidos vascos que negocien y acuerden una PROPUESTA DE SOLUCIÓN BASADO EN EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN DEL PUEBLO VASCO ANTES DEL 2010

**Alternativa 2: Si no hay ACUERDO de CONTENIDOS**

El Parlamento Vasco autorizará una CONSULTA CON DOS CUESTIONES

- ***Exigir a ETA que de por finalizado el uso de la violencia*** y que acuerde con le Gobierno español los último matices para que el fin sea definitivo.
- ***Solicitar al Gobierno español a que se llegué a un ACUERDO DE CONTENIDOS*** y solicitar a los partidos vascos que negocien y acuerden una PROPUESTA DE SOLUCIÓN BASADO EN EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN DEL PUEBLO VASCO ANTES DEL 2010



## CELEBRACIÓN DE LA CONSULTA, UNA LLAVE PARA ABRIR LA SOLUCIÓN: 25 DE OCTUBRE DE 2008

•El Pueblo vasco tiene la llave de la solución.
•Es legal, legítima y es democrática.
•No es jurídicamente vinculante pero tiene una carga política que la hace difícilmente denegable.

## PROCESO DE NEGOCIACIÓN: 2008-2010 …

Entre el Gobierno Español y ETA para negociar el final dialogado de la violencia y éste sea definitivo

Entre los Partidos políticos vascos, sin exclusiones, sobre la solución al problema político y alcancen un acuerdo Democrático.

## REFERENDUM RESOLUTIVO: 2010

Para que la sociedad Vasca ratifique el resultado del proceso de negociación, con planas garantías de legitimidad jurídica y democrática.

# EUSKAL GATAZKAREN KONPONBIDEARI HELTZEKO PROPOSAMENA



# HAURTZAINDEGIA

Udaletxe berritua amaitu ondoren Bidasoa kaleko lokalak libre geratu ziren. Jaurlaritzako haurtzaindegien arduradunekin hitz egin, adostu, proiektua landu eta udazkenean obrak hastekoak ginen. Gure asmoen arabera, **2008ko urtarrilerako 0-2 urte bitarterako beste hiru gela berri zabalik izango zituen Zumaiako Haurtzaindegi publikoak.**
Herriko auzo ezberdinetan gelak zabaltzea ideia ona iruditu zitzaigun, eta guri ez ezik, Haurreskola-Partzuergoko arduradunei ere. Era horretan, eta gune bakoitza autonomoa izanez, zerbitzuak herriko zonalde ezberdinetara urreratzea zen asmoa.
2007ko Udal Aurrekontuetan obrak egiteko partida ere izendatu eta aprobatu genuen.
**Baina urria amaitu da eta haurtzaindegi bihurtzeko bokazioa zuten lokalak AEK-rentzat bideratu ditu udeal gobernu berriak.**
Matrikula epea itxi denean, antza, hogei familia geratu dira Zumaian beraien haurrak haurtzaindegi publikora eraman ezinik. Beraz, nahiz hasiera batetan nahikoa eskasa izan zen, geroztik eskaera nabarmen hasten ari da. **AEKri lokalak uztea ondo dago, baino Txomin Agirreko lokaletan moldatu izan dira orain arte, eta gaur egun herrian haurtzaindegi plazen beharra benetan larria da.** Zein alternatiba proposatzen du Udalak?
Guk dakigula, Herri Eskolaren ondo ondoan, publikoak ez diren lurretan, Aita Mariko auzotarren garage gainean edo Arrangoletako plazan edo….prefabrikatuak jartzea.
Izatekotan ere behin behineko irtenbidea deritzogu honi. Ezingo dira gure haurrak bizpahiru urtez baino gehiagotan egoera horretan egon, prefabrikatuak txukunak izanda ere. Zein izango da behin behineko irtenbide horren kostua? Bestalde, kontutan izan al da herriko bi ikastetxeen ikuspuntua kokapena erabakitzerakoan? Ondo legoke zerikusi zuzena dutenen iritzia aurrez entzutea.
Eta dagoen eskaera kopurua ezagututa, **gai izango ote dira ANV eta EA prefabrikatuak 2008ko hasierarako prest edukitzen?** Bi hilabete falta dira. Nahikoa lan.

## Arrangoletako plaza



## Aurreikusitako prefabrikatuak



# ¿QUÉ HAY DE LA POLÍTICA DE VIVIENDA MUNICIPAL?

Tras años de gestiones logramos, a través de Zumaia Lantzen, comprar todo el suelo urbanizable para la segunda fase de Puntanueta. **Otras250 viviendas públicas, como mínimo, que podrán servir para cubrir en gran medida las necesidades de nuestros jóvenes.** Lograr suelo público en que construir VPOs no suele ser fácil. Estas viviendas tienen un precio final establecido por ley y la propia le prohíbe que el suelo suponga más de un 20% del precio final e venta. Por lo tanto, una política responsable obliga a medir mucho el precio al que se compra cada $m^2$. Lo contrario sería echar la casa por la ventana, es decir, gastar mal el dinero que es de todos.

Además de lograr el suelo tramitamos el planeamiento. Todos los documentos necesarios fueron aprobados, con el visto bueno del propio Ayuntamiento, de la Diputación y del Gobierno. **En el Plan 2007 de Zumaia Lantzen, aprobado dentro del presupuesto municipal, hay dinero para redactar proyectos de arquitectura y comenzar las obras de urbanización, el puente que unirá el nuevo polígono con el restaurante Iriondo y el inicio de la construcción de los primeros bloques de viviendas.**

Quisimos adjudicar el concurso para la redacción de los proyectos el pasado junio, tras haber valorado la Mesa Técnica de Contratación las distintas propuestas de más de una docena de estudios de arquitectura. No pudo ser, lo impidieron ANV, EA y EB.

Pero por fin, en septiembre, con las mismas propuestas sobre la mesa, con los mismos cuadros técnicos de valoración, con las mismas puntuaciones que en junio, se pudo adjudicar en el Consejo de Administración de Zumaia Lantzen la redacción de los proyectos para las primeras 136 viviendas. **Esta vez sí, se aprobó la adjudicación y se aprobó por unanimidad de todos los partidos políticos, ya que ANV, EA y EB cambiaron su postura.**

Esperamos que ya no haya problemas con la segunda fase de Puntanueta. Que se redacten los proyectos, que se hagan los sorteos con las mismas garantías que siempre y que en un par de años podamos ver ya los primeros bloques.

No hay muchos municipios que cuenten con un Plan de Vivienda tan ambicioso como el de Zumaia. **Las 136 viviendas de esta primera fase ya son muchas, pero además, hemos propuesto que los arquitectos que están haciendo los proyectos estudien la posibilidad de aplicar el "esponjamiento" que prevén las Normas municipales para poder disponer de un mayor número de VPO en Puntanueta,** de ese modo podremos responder a la necesidad de vivienda de un número mayor de jóvenes y familias de Zumaia.

Porque los concejales de EAJ-PNV seguimos creyendo, hoy como ayer, que lo verdaderamente importantes es que los proyectos salgan adelante. **Que Zumaia siga estando, en lo que se refiere a vivienda pública, en puestos de cabeza de la CAV.** Y que esas viviendas, hechas con el esfuerzo de todos, sean para los zumaiarras que lo necesiten.

**ZERTAN ARI DA UDALA OIKIAKO ETXE BABESTUEN ZOZKETAREKIN?**

**ORAINDIK ERE EZ DAKIGU EZER.**

**ETA ARAUDIETAN JASOTZEN DENA BETETZEKO DENBORA AMAITZEN ARI ZAIE.**

**1 – Zein alderdik lortu zituen botu gehien joan den maiatzeko udal hauteskundetan?**

**EAJ-PNV EA ANV EB-Aralar PSE-EE**

**2 – Zein egun proposatu du Ibarretxe Lehendakariak euskaldunoi kontsulta egiteko?**

**2008ko urtarrilaren 25a 2008ko ekainaren 25a 2008ko urriaren 25a**

**3 – Puntanuetako bigarren fasean zenbat etxebizitza publiko eraikiko ditu Zumaia Lantzenek?**

**Bat ere ez 100 etxe 250 etxe**

# GURE BIDETIK

Maitzaren 27 Udal hauteskundeak egin ziren. Gure alderdia egitasmo zehatz batekin aurkeztu zen. Zumaiarrek beren botu emateko eskubidea erabili eta gure alderdia, EAJ-PNV, izan zen alderdirik bozkatuena, 1.158 boturekin.

EA formazioa izan zen, ostera, Alkatetza eskuratu zuena. ANV-EAE-k eta Ezker Batua-Aralar-ek **2 zinegotzi bakarrik** dituen alderdi batetako ordezkaria **Alkate** izendatzea ahalbidetu zuten.

Alderdi ezberdinen exekutiben artean hartutako konpromisoenganako leialtasunik ezagaitik, eta nork daki beste zein interesengaitik ere, Alkatetza galdu genuen. Ezustekoa, ondoeza eta inpotentzia izan ziren EAJ-PNV eta EA-k legegintzaldian zehar aurkeztutako programak aurrera ateratzeko elkarri lagundu eta elkarlenean jardungo zutela zintzoki sinesten zuten hainbat pertsonen sentimenduak.

Desilusioa, EA formazio politikoak EAJ-PNV-ri ez zituztela traizionatuko eta adostutakoa beteko zutela jakin arazi bai zion. Baino hitzak haizeak eraman zituen eta kolpe politiko gogorra jaso genuen. Ziurazki desleialtasun horrek itxitzea zaila izango den zauri politikoa eragin du herrimailan. Gure egoera berria onartzen dugu. Gertatu zitekeenari buruz hausnartu dugu eta Zumaian bizi diren pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko hainbeste urtetako gure lanak, gure ilusioak eta gure ahaleginak pena merezí izan dutela, indarrean, zutik jarraitzen dutela eta aurrera begiratu araziko digutela esan nahi diegu zumaiar guztiei.

Orain opozisiotik lan egitea tokatzen zaigu, baino EAJ-PNV-ko gizon emakumeak Zumaiarekiko gure konpromisoa mantentzen dugu eta orain arteko ilusio eta ahalegin berdinarekin laean jarraituko dugu; gure herriak hala merezí bai du. GORA ZUMAIA!




## UDALBATZA:

### GOBERNUA:

| | | |
|---|---|---|
| Iñaki Arrizabalaga Alkorta | Alkatea | EA |
| Andoni Etxaniz Osa | 1. alkateordea | EAE |
| Pilar Etxabe Iriondo | 2. alkateordea | EA |
| Nerea Epelde Akzue | 3. alkateordea | EAE |
| Joseba Josu Azpiazu Azkarraga | 4. alkateordea | EAE |

### OPOSIZIOA:

| | | |
|---|---|---|
| M. Eugenia Arrizabalaga Olaizola | Zinegotzia | EAJ |
| Lide Amilibia Bergaretxe | Zinegotzia | EAJ |
| Unai Manzisidor Angonegi | Zinegotzia | EAJ |
| Manuel Zubia Artabe | Zinegotzia | EAJ |
| Emiliano Cabañas Gonzalez | Zinegotzia | PSE-EE |
| Paloma Heredero Negredo | Zinegotzia | PSE-EE |

### GOBERNUA ala OPOSIZIOA?*

| | | |
|---|---|---|
| Cristina Forcada Unanue | Zinegotzia | EB-B/A |
| Xabier Olaizola Antia | Zinegotzia | EB-E/A |

*(EB-Aralerrek Iñaki Arrizabalagari botoa eman ziona alkate izateko)



Izen abizenak:________________________________

Helbidea:________________________________

Helbide elektronikoa:________________________________

Barrukaldean agertzen diren galderak erantzun eta zure erantzunak helbide honetara bidali:

Batzokia. Zumaiako EAJ-PNV
Eusebio Gurrutxaga plaza z/g
Zumaia (20.750)

2007ko abenduaren 1ean zozketatuko dugun MP4 hau zurea izan daiteke!!